

Hitzaldietarako eztabaida- -eskalak*

Tessa Woodward

Trebatzaile askok klase magistral edo hitzalditxoak eman nahi izaten dituzte denbora gutxi dagoenean edo aurkeztu nahi duten materiala trinkoa edo esperientziatzko ariketa bidez lantzeko zaila denean. Ez da, ordea, derrigorrezkoa horrelako hitzaldietan irakasleak bakarrik hitz egitea prestaturiko oharrez baliatuz, eta trebaketariak entzun, oharrak hartu eta noizbehinka zerbait esatera mugatzea. Era asko dago honelako hitzaldi bati bizitasuna emateko, aurretik, eman bitartean eta ondoren.

Cynthia Beresford-i eskertu nahi diot eztabaida-eskalei buruzko ideia eman izana. Hark eman dit eta nik hitzaldien aurretik erabiltzeko egokitu egin dut.

Prozedura

Hona hemen zer egin behar den.

1 Hitzaldiaren mami edo muinetik puntu edo gai nagusiak hartu. Beroriekin ados egoteko edo ez egoteko baieztapen modura idatzi. Adibideren batek edo bestek gauzak argitzen lagun dezake. Duela gutxi “Itzulpenarentzako bide berriak” izenburuko hitzaldi bat eman behar izan nuen. Hamarren bat puntu nagusi zeuden tratatu nahi nituenak. Baieztapen eztabaidagarri bihurtuz, ondorengo hauek ziren, inolako ordenarik gabe:

- Itzultzea atsegina da testuak atseginak direlako.
- Hitz edo esaldi guztiak itzul daitezke xede-hizkuntzara.
- Itzultzeko testurik onenak idazle ospetsuek idatzitakoak dira.
- Itzulpena ez dago modan hizkuntz irakaskuntzan, baina oso ekintza naturala da.
- Hobe da ikasleek berek sortutakoa itzultzea, *barne*-testuak, alegia.
- Testu bat bera batzuek era batean itzuliko lukete eta beste batzuek bestean.
- Ez dago itzulpen bat bakarrik biribil edo perfekturik.
- Egiazko bizitzan zerbait *norbaitentzat* itzultzen da.
- Klasean ere *norbaitentzat* itzuli beharko litzateke, “hartzailereren” batentzat.
- Ez du zentzurik ikasleak itzulpen-ohitura onak hartzen treba-

tzea, gero aztertzaileek testuingurutik kanpoko ariketak egina-
razten badizkiete.

- 2 Baieztapen bakoitzaren azpian honelako marra edo eskala bat egin:



- 3 Fotokopiatu orrialdea eta gero moztu. Eman baieztapen eta eskala bat bakoitzari.

- 4 Partaideek beren zatitxoak irakurri behar dute lehenik, hausnartu eta gero X batez eskala markatu beren adostasun edo desadostasunaren arabera. Adibidez:



(Honek adostasun handi samarra adieraziko luke.)

- 5 Gero partaideak elkarrekin bilduko dira beren zatitxoan zer dagoen bata besteari esateko, beren iritzia azaltzeko eta baieztapenarekiko adostasun- edo desadostasun-maila beretsua duen jendea aurkitzen saiatzeko.
- 6 Ondoren, trebatzaileak bere hitzaldia eman dezake.
- 7 Entzuten duten bitartean, normalean jendea motibaturik egon ohi da bere papertxoko gaia aztertzen duen hitzaldi-zatian arreta berezia jartzeko. Interesa izaten dute trebatzailearen iritzia jakiteko.
- 8 Hitzaldiaren ondoren, trebaketariak elkartu nahi badute, guztien artean hitzaldiko puntu nagusiak izango dituzte paper-zatitxoetan. Denek izango dituzte seguraski gogoan puntu batzuk.

Teknikaren abantailak

Eztabaida-eskalaren abantailak honako hauek dira, nire ustez:

- Hasierako irakurketa, hausnarketa eta hizketak gaira biltzen dute arreta eta honela zenbait gairi buruz daukan edo ez daukan informazio eta iritziez ohartzen da jendea.
- Gero, puntu nagusiak biltzeko elkartzera bultzatzen da jendea.
- Lasaitu eta hitzaldiaz goza daiteke jendea, jakinik dagoeneko adierazi direla puntu nagusiak.
- Jendeak jakingo du hizlariak zer utzi duen kanpoan edo zertarako ez duen denborarik izan. Puntu hauek elkarrekin iker ditzakete edo/eta hurrengoan partaideek aurkeztu.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharra

* Ingelesez “Lecture Discussion Scales”, *The Teacher Trainer* (1. bol., 1. zenb., 1987ko udaberria)

aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.